<p>Balorazio hori eta eskatzailearen inguruabarrak egiaztatze behar den dokumentazio guztia espedientearen parte izango dira.</p>	<p>Dicha valoración y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias de la persona solicitante, formarán parte del expediente.</p>

<p>Proposamena horretarako sortutako batzorde teknikoari helaraziko zaio. Batzorde teknikoa adinekoen arloko lau gizarte langilek osatuko dute.</p>	<p>La propuesta será trasladada a la comisión técnica creada para tal efecto. La comisión técnica estará formada por cuatro trabajadoras sociales del área de tercera edad.</p>
<p>Balorazioa eta batzorde teknikoaren proposamena egin ondoren, ebazpen-proposamena egingo da, eta Alkatetzara helaraziko da. Hark ebazpena emango du, adinekoentzako ostatu-eskaera baiesteko edo ezesteko.</p>	<p>Tras la valoración y la propuesta de la comisión técnica se realizará una propuesta de resolución, que será elevada a alcaldía que emitirá resolución estimando o desestimando la solicitud de alojamiento para personas mayores.</p>
<p><b>11. artikulua. Eskaerak ebaztea</b></p>	<p><b>Artículo 11. Resolución de solicitudes</b></p>
<p>Ebazpenak erabakiko du eskatutako zerbitzua ematen den edo ukatzen den.</p>	<p>La resolución indicará si se concede o deniega el servicio solicitado.</p>
<p>Aldeko ebazpena izanez gero, urtea amaitu arte zerbitzuengatik ordaindu beharreko kuota adieraziko du. Kuota urtero eguneratuko da Udalak onartzen duen Jokin Amondarain adinekoentzako alokairuko apartamentuen ordenantza fiskalean.</p>	<p>En caso de resolución favorable, indicará la cuota a abonar por los servicios hasta que finalice el año. La actualización de la cuota se realizará anualmente en la ordenanza fiscal de los apartamentos de alquiler para personas mayores Jokin Amondarain que aprueba el Ayuntamiento.</p>
<p>Eskabideak ebazteko organo eskuduna alkatea izango da.</p>	<p>El órgano competente para la resolución de solicitudes será el alcalde.</p>
<p>Espedientea ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da, dagozkion errekurtsoak jarri ahal izateko, administrazioak esanbidez ebazteko duen betebeharrari kalterik egin gabe.</p>	<p>El plazo máximo para resolver el expediente será de 3 meses. Transcurrido dicho plazo sin resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud, a efectos de poder interponer los correspondientes recursos, sin perjuicio de la obligación de la administración de resolver expresamente.</p>
<p><b>12. artikulua. Itxarote-zerrenda</b></p>	<p><b>Artículo 12. Lista de espera</b></p>
<p>Pasaia Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Saila arduratuko da itxarote-zerrenda egiteaz eta plaza hutsak betetzeaz; horretarako, III. eranskinean adierazitako onarpen-baremoa erabiliko du. Honako aldagai hauen arabera egingo da egoeraren balorazioa:</p>	<p>El departamento de servicios sociales del Ayuntamiento de Pasaia será el encargado de configurar la lista de espera, así como la provisión de plazas vacantes para lo cual utilizará el baremo de admisión detallado en el (Anexo III) que recoge la valoración de la situación en relación a las siguientes variables:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldagaia: Etxebizitzaren/bizilekuaren egoera</li> <li>- Aldagaia: Egoera sozio-familiarra/pertsonala</li> <li>- Aldagaia: Gizartean duen parte-hartzea</li> <li>- Aldagaia: Mendekotasuna</li> <li>- Aldagaia: Errotzea</li> <li>- Aldagaia: Egoera ekonomia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Variable: Situación de vivienda/alojamiento</li> <li>- Variable: Socio-familiar/personal</li> <li>- Variable: Participación social</li> <li>- Variable: Dependencia</li> <li>- Variable: Arraigo</li> <li>- Variable: Valoración Economía</li> </ul>


<p>Eskaera bikoitzak baloratzerakoan, banaka baloratu beharreko aldagaietan, puntuazio altuena hartuko da kontuan.</p>	<p>En la valoración de solicitudes dobles, en las variables de valoración individual se tendrá en cuenta la puntuación individual más alta.</p>
<p>Plaza esleitzeko beste irizpide batzuk.</p>	<p>Otros criterios de asignación de plaza.</p>
<p>Plaza bat hutsik egon eta puntuazioan berdinketa badago, batzorde teknikoak baloratuko du puntuazio bera dutenen artean zeinek daukan sartzeko lehentasuna.</p>	<p>A igual puntuación existiendo plaza vacante, será la comisión técnica la que valore el acceso prioritario entre las solicitudes con misma puntuación.</p>
<p>Itxarote-zerrendan dauden pertsonak, edo, hala badagokio, haien ordezkari direnak behar bezala egiaztatu ondoren espedientea berrikusteko eskaera egin ahal izango dute, baldin eta inguruabar pertsonalen aldaketek balorazioa alda badezakete eta gutxienez 6 hilabete igaro badira azken balorazioa egin zenetik; eta horrek itxarote-zerrenda aldatzea ekarriko du.</p>	<p>Las personas que estuvieran en lista de espera, o en su caso, quienes ejerzan su representación podrán instar, acreditándolo convenientemente, la revisión de su expediente cuando las variaciones de sus circunstancias personales pudieran modificar la valoración y habiendo transcurrido un mínimo de 6 meses desde la última valoración, lo que conllevará la modificación de la lista de espera.</p>
<p>Era berean, ofiziozko berrikuspenak egin ahal izango dira, kasuaren inguruabarrak aldatuz gero, komenigarritzat joz gero.</p>	<p>Así mismo, se podrán realizar revisiones de oficio si la modificación de las circunstancias sobre el caso así lo aconsejan.</p>
<p><b>III. KAPITULUA. SARRERA ETA EGONALDIA</b></p>	<p><b>CAPÍTULO III. INGRESO Y PERMANENCIA</b></p>
<p><b>13. artikulua. Apartamentuan sartzea, egokitzapen aldia eta plazaren behin betiko esleipena</b></p>	<p><b>Artículo 13. Ingreso en los apartamentos, periodo de adaptación y adjudicación definitiva de plaza</b></p>
<p>Plaza esleitzen denean egiaztatu beharko da ea pertsonak zerbitzuan sartzeko baldintza orokorrak betetzen jarraitzen duen. Eskaera ezetsi ahal izango da baldintza horiek betetzean aldaketaren bat badago, batez ere mendetasun-maila betetzeari dagokionez (inoiz ez I. gradutik gorakoa).</p>	<p>En el momento de la adjudicación de la plaza, se deberá comprobar si la persona continúa reuniendo los requisitos de acceso generales al servicio, pudiendo ser desestimada la solicitud si hubiera alguna modificación en el cumplimiento de los mismos, en especial en relación al cumplimiento del nivel de dependencia (no superior a grado I).</p>
<p>Plazaren esleipendunak apartamentuan sartuko dira udalak adierazitako egunetan, eta gehienez ere 15 egun baliioduneko epea izango dute horretarako; bestela, zerbitzurako eskubidea galduko dute, ezinbesteko kasuetan edo behar bezala egiaztatutako ustekabeko kasuetan izan ezik, Batzorde Teknikoak balioetsi ondoren.</p>	<p>Las personas adjudicatarias de plaza deberán incorporarse al apartamento, en las fechas que el ayuntamiento les señale con un máximo de 15 días hábiles de plazo para hacerlo, perdiendo en caso contrario, el derecho al servicio salvo causa de fuerza mayor o caso fortuito debidamente acreditado y que será valorado por la Comisión Técnica.</p>
<p>Behin pertsona horiek baliabidea eskuratu dutenean, probaldian egongo dira hiru</p>	<p>Una vez que las personas han accedido al recurso, estarán en periodo de prueba durante</p>

<p>hilabetez, eta probaldi horretan baloratuko dira bizikidetzan egoki moldatu ote diren eta eskatutako arauak betetzen ote dituzten. Epe horretan berariazko kontrako ebazpenik ematen ez bada, interesdunak plazarako eskubidea finkatuko du.</p>	<p>tres meses, durante el cual serán valoradas sus condiciones de adaptación, convivencia y cumplimiento de las normas exigidas. Transcurrido este periodo, sin resolución expresa en contra, la persona interesada consolidará su derecho a la plaza.</p>
<p>Plaza ez bada behin betiko esleitzen, beste ebazpen bat emango da, zerbitzua ukatzeko.</p>	<p>En el caso de que no procediera la adjudicación definitiva de la plaza, se adoptará una nueva resolución, denegando el acceso al servicio.</p>
<p>Erabiltzaile izaerak ez du apartamentu zehatz baten gaineko eskubiderik ematen, baizik eta orokorrean bizilekua lortzeko. Apartamentu zehatza Udalak esleituko du pertsona bakoitzaren lehentasunen, ezaugarrien eta beharren arabera, okupazio-aukeren arabera eta plazen banaketaren arabera. Gainera, aurrerago aldaketak ere proposatu eta erabaki ahal izango dira, arrazoi berberengatik.</p>	<p>La condición de persona usuaria no confiere derecho sobre un apartamento en concreto, sino el alojamiento en general y, al específico que el Ayuntamiento asigne en función de las prioridades, características y necesidades de cada persona, posibilidades de ocupación y distribución de las viviendas pudiendo proponer y determinar el cambio posterior por las mismas causas.</p>
<p><b>14. artikulua. Beste udalerrietako salbuespen kasuak</b></p>	<p><b>Artículo 14. Casos excepcionales de otros municipios</b></p>
<p>Plaza libreak izanez gero, Pasaia Udaleko dagokion organoak hala erabakitzen badu, III. Eranskinetako baremoan oinarri hartu eta eta Gizarte Ekintza Sailak proposatu ondoren, zerbitzu hau beste udalerritan batean errolatuta dauden eta sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak eskuratu ahal izango dute, baldin eta jatorrizko udalerritik bere gain hartzen badu tarifaren kostu osoaren eta ordaindutako kuotaaren eta erabiltzaileak lehen urtean sortitzaileen zorren arteko aldea, V. eranskinean agertzen den konpromiso-agiria sinatuta.</p>	<p>En el caso de disponer de plazas libres y, siempre y cuando así lo decida el órgano correspondiente del Ayuntamiento de Pasaia a propuesta del Departamento de Servicios Sociales en base al baremo recogido en el Anexo III, podrán acceder a este servicio las personas empadronadas en otro municipio y que cumplan los requisitos exigidos para el ingreso, si el municipio de origen asume la diferencia entre el coste total de la tarifa y la cuota abonada y las posibles deudas generadas por el usuario durante el primer año mediante la firma del documento de compromiso que figura en el Anexo V.</p>
<p><b>15. artikulua. Egonaldia</b></p>	<p><b>Artículo 15. Permanencia</b></p>
<p>Egonaldiaren izaera egonaldi luzekoa da; salbuespenezko kasuetan, ordea, aldi baterako izan daiteke, gizarte langileek balorazioa egin ondoren. Egonaldia iraunkorra izango da harik eta eskatzaileak sarbide-baldintzak betetzen jarraitzen duen artean, eta, bereziki, pertsonak oraindik ere mantentzen badu bertan bizitzen jarraitu ahal izateko behar den autonomia maila (autonomia, mendekotasun arriskua edo</p>	<p>La estancia en los apartamentos tendrá carácter de larga estancia salvo en casos excepcionales que podrá ser temporal, previa valoración de los/as trabajador/as sociales. Este carácter de permanencia se mantiene mientras se sigan cumpliendo las condiciones de acceso al recurso por parte de la persona solicitante, y en especial, la persona mantenga un nivel de autonomía suficiente para permanecer en los mismos (autónoma,</p>

mendekoa gradu I).	fragilidad, riesgo de dependencia o dependencia grado I).
<b>16. artikulua. Plaza erreserbatzea</b>	<b>Artículo 16. Reserva de plaza</b>
Apartamentuetako erabiltzaileek plaza erreserbatzeko eskubidea izango dute, kanpoan daudenean, honako egoera eta baldintza hauetan:	Las personas usuarias de los apartamentos tendrán derecho a reserva de plaza durante los periodos de ausencia en las siguientes situaciones y condiciones:
Erreserba, bere borondatez kanpoan dagoenean:	Reserva por ausencia voluntaria:
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtean, gehienez, 60 egunetan egon daiteke kanpoan bere borondatez.</li> <li>- Bere borondatez kanpoan egongo bada, idatziz jakinarazi beharko dio zentroko arduradunari, eta inoiz ere ez dira alde aurretik jakintzat emango.</li> <li>- Bere borondatez kanpoan egonda ere, pertsona egoiliarrek bere oinarritzko kuota ordaindu beharko du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Como máximo se permiten 60 días de ausencias voluntarias al año.</li> <li>- Las ausencias voluntarias deberán ser comunicadas por escrito a la técnico responsable y en ningún caso se presupondrán.</li> <li>- La ausencia voluntaria, no exime del pago de la cuota establecida a la persona residente.</li> </ul>
Erreserba ospitalean egoteagatik, osasun arazoengatik edo antzeko beste arrazoi batengatik:	Reserva por hospitalización, problemas de salud u otro motivo de índole similar:
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kanpoan dagoen aldi horretan pertsona horrek tasa bat ordaindu behar badu beste zerbitzu batean egoteagatik (plaza soziosanitarioa, foru egoitza bateko aldi bateko egonaldia, etab.), apartamentuen kuota honela egokitu da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzailearen diru-sarreretatik kendu egingo da une horretan bizileku duen zerbitzuari ordaindu beharreko zatia. Nolanahi ere, gutxieneko ehunekoa ordainduko da beti, ez bada preskripzio teknikoren batean justifikatzen kuota hori edo beste portzentajeren bat salbuesten zaiola.</li> </ul> </li> <li>- Ospitalean egoteagatik, osasun arazoengatik edo antzeko beste arrazoi batengatik kanpoan egon behar badu, lehenbailehen jakinaraziko zaio zentroko arduradunari, kasu bakoitzean eskura dauden bitartekoen bidez. Halako egoeretan, 3 hilabetean erreserbatuko da plaza. Epe horren ondoren baja emango zaio plaza horri, ez badu talde teknikoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Cuando por motivo de este tipo de ausencias, la persona deba necesariamente abonar una tasa por permanecer en otro servicio (plaza sociosanitaria, estancia temporal en una residencia foral, etc.) se adecuará la cuota de los apartamentos de la siguiente forma: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Se descontará de los ingresos de la persona usuaria la aportación que tenga que abonar al servicio en el que estuviera. No obstante, siempre se abonará el porcentaje mínimo, salvo prescripción técnica que justifique la exención de dicha cuota u otro porcentaje.</li> </ul> </li> <li>- Las ausencias por hospitalización, problemas de salud, u otro motivo de índole similar, deberán ser comunicadas lo antes posible a la responsable del recurso por los medios disponibles en cada caso. En este tipo de situaciones, se reservará la plaza durante 3 meses, dándose de baja la plaza después de este tiempo, salvo que por causa justificada y valorada por el equipo</li> </ul>

<p>arrazoi justifikatu bategatik edo balorazio egoki bategatik epea luzatzen. Luzapen hori gehienez 3 hilabetekoa izango da.</p>	<p>técnico se amplíe. Esa ampliación tendrá un tiempo máximo de 3 meses.</p>
<p><b>17. artikulua. Zerbitzua emateari uztea. Arrazoiak</b></p>	<p><b>Artículo 17. Extinción de la prestación del servicio. Motivos</b></p>
<p>Apartamentuetako egoiliar izaera arrazoi hauengatik galdu daiteke:</p>	<p>La condición de residente de los apartamentos se pierde por las siguientes causas:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Apartamentuetan sartu ahal izateko baldintzetakoren bat ez betetzea.</li> <li>- Bere borondatez uko egitea: uko egitea ez da ustezkoa izango, baizik eta espresuki eta zalantzarik gabe jasota egongo da.</li> <li>- Zigor baten ondorioz behin betiko kanporatua izatea.</li> <li>- Erabiltzaileen betebeharrak (barne araudian aurreikusitakoak) behin eta berriz ez betetzea.</li> <li>- Berariazko baimenik gabe edo justifikatutako arrazoirik gabe apartamentuetatik kanpo egotea urtean 30 egunetik gora (jarraian edo ez), apartamentuetako arduradunari jakinarazi gabe. Salbuespen izango dira 15. artikuluan araututako justifikatutako absentzien egunak.</li> <li>- Pertsona bat egoitzan sartzearen aldeko ebazpena eman eta ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamar egunetan ez sartzea (justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik).</li> <li>- Jarritako kuota ekonomikoen betebeharrak ez betetzea (hiru hileroko), justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik.</li> <li>- Hiltzea.</li> <li>- Zerbitzua aldi baterakoa denean, egoitza atera eta erabiltzaile izaera galtzea bi arrazoiengatik gerta daiteke: batetik, aurrez adierazitako zirkunstantziengatik eta, bestetik, egoitzan sartzea ekarri zuen egoera bukatzeagatik, eta/edo zerbitzuan jarraitzeko baimena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Por pérdida de cualquiera de los requisitos de acceso a los apartamentos.</li> <li>- Por renuncia voluntaria, que en ningún caso se presumirá, sino que deberá constar de forma expresa e inequívoca.</li> <li>- Por expulsión definitiva a consecuencia de una sanción.</li> <li>- Por incumplimiento reiterado de otras obligaciones de las personas usuarias previstos en el reglamento interno.</li> <li>- Por permanecer fuera de los apartamentos sin permiso expreso ni causa justificada y no haberlo comunicado a la persona responsable de los apartamentos durante un tiempo superior a 30 días consecutivos o discontinuos al año, salvo excepción de los días por ausencias justificadas regulados en el artículo 15.</li> <li>- La persona cuyo ingreso haya sido resuelto favorablemente y no efectúe el ingreso en los diez días siguientes a la fecha de notificación, salvo que existan motivos que lo justifiquen.</li> <li>- No cumplir con las obligaciones de las cuotas económicas fijadas (tres mensualidades), salvo motivos que lo justifiquen.</li> <li>- Por fallecimiento.</li> <li>- En los casos de prestación del servicio con carácter temporal, la salida y pérdida de condición de persona usuaria podría darse además de por las circunstancias anteriormente citadas, por la finalización de la situación que motivó el acceso al recurso y/o por finalizar la autorización de</li> </ul>

<p>amaitzeagatik.</p> <p>– Laguntza maila handiagoa eskatzen duen narriadura fisiko/psikiko/kognitiboa edukitzea.</p>	<p>permanencia en el servicio.</p> <p>– Por deterioro físico/psíquico/cognitivo que requiera un recurso de mayor intensidad de apoyo.</p>
<p>Kasu horretan, erreferentziazko gizarte langileak eta zentroko koordinatzaileak baloratuko dute narriadura psiko-fisikoa eta soziala jarraitua ote den eta eguneroko bizitzako gauzak egiteko laguntza handiagoa behar duen.</p>	<p>La trabajadora social de referencia junto con la técnico responsable del recurso valorarán el progresivo deterioro psíco-físico y social y el incremento o no en la intensidad de apoyo en las actividades de la vida diaria.</p>
<p>Beste mendekotasun maila batek eskatzen duen ostatu-baliabide batera eraman behar izanez gero, mendekotasunaren balorazio berri bat eskatuko da, eta, beharrezkoa bada, mendeko pertsonentzako bigarren arretako egoitza baterako eskaera egingo da. Kasu horietan, erabiltzaileak aukera edukiko du bigarren arretako egoitza batera joan baino lehen bertan bizitzen jarraitzeko, baldin eta pertsona horrek dituen beharrek ez badituzte gainditzen hari aldi horretan arreta emateko egoitzak dituen aukerak.</p>	<p>En caso de tener que llevarse a cabo el traslado a un recurso de alojamiento que requiere otro nivel de dependencia, se solicitará una nueva valoración de la misma, iniciándose en caso necesario, una solicitud a un recurso residencial de atención secundaria a personas dependientes. En estos casos la persona usuaria podrá permanecer en el recurso el tiempo que se requiera hasta el traslado al recurso residencial de atención secundaria siempre y cuando las necesidades a atender no sobrepasen las posibilidades existentes para atender a la persona temporalmente en el mismo.</p>
<p>Hala dagokionean, Udaleko alkateak, batzorde teknikoak hala proposatuta, egoiliar izaera iraungitzea ebatziko du, eta interesdunari jakinaraziko dio zein izan den egoiliar izaera galtzeko arrazoa, noiz bukatzen den eta apartamentuetatik ateratzeko epea zein den, iraungitze-arrazoiaren arabera, eta inoiz ez 15 egun naturaletan.</p>	<p>En los casos que proceda, el alcalde resolverá a propuesta de la Comisión técnica la extinción de la condición de residente y notificará a la persona interesada la causa de la pérdida de condición de residente, así como la finalización y el plazo de salida de los apartamentos, acorde al motivo de extinción y no inferior en ningún caso a 15 días naturales.</p>
<p>Apartamentuetatik irten eta gero, interesdunak jaso egin beharko ditu bere gauza guztiak eta apartamentuan sartuta dituen altzari eta tresna guztiak, gehienez ere bere egonaldi-epea bukatu eta hurrengo 7 egun naturaletan. Epe hori igaro ondoren apartamentuan jarraitzen duten objektu pertsonalak Udalaren esku geratuko dira.</p>	<p>Tras la salida del recurso, la persona interesada deberá retirar todos sus enseres personales y los muebles y útiles que hubiera introducido en el mismo, como máximo antes de los 7 días naturales siguientes al plazo de finalización de su estancia. Una vez transcurrido el plazo indicado, los objetos personales que permanezcan en el apartamento, quedarán a disposición del ayuntamiento.</p>
<p><b>IV. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA</b></p>	<p><b>CAPÍTULO IV. RÉGIMEN ECONÓMICO</b></p>
<p><b>18. artikulua. Zerbitzuaren prezio publikoa</b></p>	<p><b>Artículo 18. Precio público del servicio</b></p>

 <p>PASAIKO UDALA www.pasaia.eus</p>	<p><b>Adinekoentzako Jokin Amondarain alokairuko apartamentuetako udal araudia</b></p> <p><b>Reglamento municipal de los apartamentos de alquiler para personas mayores Jokin Amondarain</b></p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Luz./Ext. 910 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>GIZARTE EKINTZA gizartekintza@pasaia.net</p> <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">T050100</p>
--	--	---

<p>Adinekoentzako udalaren ostatu-zerbitzuak erabiltzaileak koordainketa bidez ordaindu beharreko zerbitzuak dira.</p>	<p>Los servicios de alojamiento municipal para personas mayores son un servicio sujeto a copago por parte de la persona usuaria.</p>
<p>Udalak ordenantza fiskaletan urtero ezarriko ditu egoiliarak ordaindu beharreko tarifak eta/edo prezio publikoak, hau da, oinarritzko zerbitzuei eta zerbitzu osagarri guztiei dagozkienak. Pertsona bakoitzak ordaindu behar duen prezioa ere jarriko du.</p>	<p>El ayuntamiento a través de las ordenanzas fiscales, establecerá anualmente las tarifas y/o precios públicos a abonar por las personas residentes, tanto por los servicios básicos como por el conjunto de servicios complementarios y el precio por persona.</p>
<p>Pasaiaiko Udalak jarritako tarifa eta prezioen araubideak esan nahi du erabiltzaileak aldiro-aldiro ordaindu behar dituela, apartamentuak erabiltzeagatik eta bertan sartutako zerbitzuengatik.</p>	<p>El régimen de tarifas y de precios establecidos por el Ayuntamiento de Pasaia presupone el deber de pago periódico por parte de la persona usuaria, en contraprestación por el uso y prestación de servicios incluidos en los apartamentos.</p>
<p>Tarifa osorik ordaindu beharko da, hilero, hilabetean apartamentuan bizi izandako egunak dena direlakoak izanda ere. Behin betiko bajak edo alta berriak gertatzen direnean, ordea, horiek jasotzen diren erregistroan inskribatuta izandako epealdiko kuota proportzionala ordaindu beharko da (batzorde teknikoak hala arrazoitu eta baloratutakoak); kasu horietan, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak zehaztutakoa ezarriko da.</p>	<p>La tarifa a abonar se liquidará mensualmente en su totalidad, con independencia del número de días del mes que se haya ocupado el apartamento. Solamente en los casos de alta nueva o baja definitiva se aplicará una cuota proporcional al periodo disfrutado y a excepción de encontrarse en suspensión temporal, así motivados y valorados por la comisión técnica, aplicando en esos casos lo especificado para ello en la normativa en vigor en cada momento.</p>
<p>Erabiltzaileari baja eman ondoren, Pasaiaiko Udalak sortutako zorra kobratuko du, eta zor duen zenbatekoa atzeratuko du bere finantza-kontuetatik, halakorik balego.</p>	<p>Tras causar baja la persona usuaria, el Ayuntamiento de Pasaia procederá al cobro de la deuda contraída re trayendo el importe adeudado de sus cuentas financieras si las hubiere.</p>
<p style="text-align: center;"><b>19. artikulua. Erabiltzailearen ekarpena</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>Artículo 19. Aportación de la persona usuaria</b></p>
<p>Ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, kontuan izango dira bizikidetzaren unitatearen baliabideak. Bizikidetzaren unitatearen baliabideak zeintzuk diren zehazteko, baliabide-multzo osoa kontatuko da, bai eskatzailearen errendimendua eta ondarea, bai bere bizikidetzaren unitateko beste kideena ere.</p>	<p>Para calcular la aportación económica a realizar se tendrán en cuenta los recursos de la unidad de convivencia. Para la determinación de los recursos de la unidad de convivencia, se computará el conjunto de recursos, tanto los rendimientos como el patrimonio, de la persona solicitante y de las demás personas miembros de dicha unidad.</p>
<p>Honakoek osatzen dute bizikidetzaren unitatea:</p>	<p>La unidad de convivencia está constituida por:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskatzaileak.</li> <li>- Bere ezkontideak edo izatezko bikoteak.</li> <li>- Azken bi urteetan bizikidetzaren unitateko kide diren 60 urtetik gorako anaia-arrebek.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- La persona solicitante.</li> <li>- La o el cónyuge o pareja de hecho.</li> <li>- Hermanos/as mayores de 60 años que formen parte de la unidad convivencial en</li> </ul>

	los dos últimos años
Kalkuluetarako IV. eranskinean jasotako baremoa eta baldintzak ezarriko dira.	Se aplicará el baremo y las condiciones de cálculo recogidas en el Anexo IV.
Hauek izango dira errentak eta ondarea:	Se considerarán rentas y patrimonio:
<p>a. Ondareztat hartuko da kapital higigarri edo higiezin guzti-guztia (landatarrak eta hiritarrak); eskaeraren hasiera baino bost urte lehenagokoak baloratuko dira.</p> <p>Kapital higigarritzat hartuko dira kontu korronteko eta epekako gordailuak, inbertsio-funtsak eta pentsio-funtsak, balio higigarriak, bizitza-aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak eta objektu balioetsuak.</p> <p>Erabiltzaileak ondare higiezina badu, horren balio katastrala kontabilizatuko da ondare gisa.</p> <p>b. Errenta edo diru-sarrera konputagarritzat hartuko dira: eskatzaileak, bere ezkontideak edo izatezko bikoteak eta/edo laguntzaileak dituen errendimendu eta eskubideak (lanetik eta kapitaletik eratorritakoak), bai eta jasotzen duen beste edozein ere, eta zehazki:</p>	<p>a. Por patrimonio se entiende la totalidad del capital mobiliario e inmobiliario (bienes de naturaleza rustica y urbana), valorado desde los cinco años anteriores al inicio de la solicitud.</p> <p>Por capital mobiliario se entiende los depósitos en cuenta corriente y plazo, fondos de inversión y fondos de pensiones, valores mobiliarios, seguros de vida, y rentas temporales o vitalicias objetos de valor.</p> <p>Cuando la persona usuaria disponga de patrimonio inmobiliario, se contabilizará como patrimonio el valor catastral del mismo.</p> <p>b. Se considerarán rentas o ingresos computables: los rendimientos y derechos de que disponga anualmente la persona solicitante, su cónyuge o pareja de hecho y/o acompañante, derivados tanto del trabajo como del capital, así como cuales quiera otros que se pudieran percibir, y en concreto:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pentsio eta prestazio ekonomikoak, funts publiko edo pribatuen kontura jasotakoak. Diru-sarrera garbiak zenbatuko dira.</li> <li>- BGAE bateko edo antzeko aurreikuspen plan bateko edo aseguru kontratu bateko eduki ekonomikoen eskubideetatik lortutako diru-sarrerak.</li> <li>- Bere kontura edo beste baten kontura egindako lanetik lortutakoak zenbatuko dira.</li> <li>- Sariak eta aparteko diru-sarrerak. Aparteko diru-sarrerak: herentziak eta legatuak, dohaintzak, ondarearen salmentatik sortutako errendimenduak eta aurreko ataletan aurreikusi gabeko diru-sarrera guztiak, ohikoak ez direnak eta salbuespenezko moduan lortutakoak. Diru-sarrera horiek ondasun modura baloratu ez direnean zenbatuko dira, sortzapenaren</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Las pensiones y prestaciones económicas con cargo a fondos públicos o privados. Se computarán los ingresos netos.</li> <li>- Los ingresos obtenidos por los derechos de contenido económico en una EPSV u en otros planes de previsión de carácter análogo o en contratos de seguros.</li> <li>- Los rendimientos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena, computándose los ingresos netos.</li> <li>- Premios e ingresos extraordinarios. Se entenderán como ingresos extraordinarios las herencias y legados, donaciones, recursos generados por venta de patrimonio y cualesquiera otros ingresos no contemplados en los apartados anteriores, de carácter no regular u obtenidos de modo excepcional. Estos ingresos se computarán cuando no se hayan valorado como patrimonio, en los 5</li> </ul>

<p>ondorengo 5 urteetan; urte bakoitzeko hauxe zenbatuko da: sariaren edo aparteko diru-sarreraren batura garbia zati bost.</p>	<p>años posteriores al devengo, computando por cada año el resultado de dividir la suma neta del premio o ingreso extraordinario por cinco.</p>
<p>Salbuetsitako errentak:</p>	<p>Rentas no computables:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mantenu-pentsioak edo konpentsazio-pentsioak ordaintzeko kopuruak, epai judicial baten bidez jarrita daudelako.</li> <li>- Laguntza Produktuak eta inguru fisikora egokitzekoak erosteko diru-laguntza publikoak.</li> <li>- 39/2006 Legeak aurreikusitako prestazio ekonomikoak (abendua 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).</li> <li>- Gizarte Larrialdiko laguntzak, Diru-sarrerak Bermatzekoak eta gizarte-inklusiokoak.</li> <li>- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoak.</li> <li>- Kontuan hartuta ondasun higiezinak ondare bezala baloratuko direla, horien errentaren bidez lortutako kapital higiezinaren errendimenduak ez dira zenbatuko bizikidetzaren errenta kalkulatzeko, ohiko etxebizitza izan ezik, baldin eta alokatuta badago. Kapital higigarriaren errendimenduak ere salbuetsita egongo dira.</li> <li>- Izaera finalista duten beste prestazio sozial batzuk, halakorik balego.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Las cantidades que estén destinadas al pago de pensiones de alimentos o a pensiones compensatorias, por estar establecidas por sentencia judicial.</li> <li>- Las subvenciones públicas para la adquisición de Productos de Apoyo y adaptación del medio físico.</li> <li>- Las prestaciones económicas contempladas en la ley 39/2006 de 14 de noviembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.</li> <li>- Las Ayudas de Emergencia Social y para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión social.</li> <li>- Las Prestaciones económicas para mujeres víctimas de violencia de género.</li> <li>- Teniendo en cuenta que los bienes inmuebles se valorarán como patrimonio, los rendimientos de capital inmobiliario obtenidos por el arrendamiento de los mismos estarán exentos de cómputo a efectos del cálculo de la renta de la unidad de convivencia, a excepción de la vivienda habitual en el caso de que estuviera alquilada. Igualmente estará exentos los rendimientos de capital mobiliario.</li> <li>- Otras prestaciones sociales de carácter finalista, en su caso.</li> </ul>
<p><b>20. artikulua. Ordaintzeko modua</b></p>	<p><b>Artículo 20. Forma de pago</b></p>
<p>Hileko kuota udalak ezarritako epeetan ordaindu beharko da, banku-helbideratzearen bidez.</p>	<p>El abono de la cuota del mes deberá ser realizado en las fechas establecidas por el ayuntamiento, mediante domiciliación bancaria.</p>
<p>Ezarritako epean ordaintzen ez diren zorrak dagokion administrazio-prozeduraren bidez exijituko dira (premiamentua/betearazlea). Eskatutako zerbitzu osagarri guztiak, nahiz eta erabili ez, fakturatu egingo dira, aldez aurretik abisatutako kasuetan izan ezik.</p>	<p>Las deudas no pagadas en los periodos establecidos se exigirán por el procedimiento administrativo correspondiente (apremio/ejecutiva). Se facturarán todos los servicios complementarios solicitados aun cuando no se hayan utilizado, salvo que se haya avisado previamente.</p>
<p>Tarifa orokorrean sartuta ez dauden zerbitzu osagarrien prezio publikoak banku-</p>	<p>Los precios públicos correspondientes a los servicios complementarios no incluidos en la</p>

<p>helbideratzearen bidez ordainduko dira, batzorde teknikoak baloratuko dituen salbuespenak izan ezik.</p>	<p>tarifa general, se abonarán mediante domiciliación bancaria, salvo excepciones que serán valoradas por la comisión técnica.</p>
<p><b>II. TITULUA FUNZIONAMENDUA ETA BARNE- ARAUBIDEA</b></p>	<p><b>TITULOII FUNCIONAMIENTO Y RÉGIMEN INTERNO</b></p>
<p><b>I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK</b></p>	<p><b>CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES</b></p>
<p><b>21. artikulua. Xedea</b></p>	<p><b>Artículo 21. Objeto</b></p>
<p>Apartamentuen helburua da adinekoei etxebizitza aukera bat eman eta kalitatezko bizikidetza eskaintzea. Horretarako, beharrezkoa eta ezinbestekoa da funtzionamendu arau batzuk jartzea bai erabiltzaileentzat, familiartekoentzat, profesionalentzat, bai eta etxebizitza horietako eguneroko bizitzan parte hartzen duten gainerako pertsonentzat ere. Denek bete beharko dituzte.</p>	<p>Los apartamentos tienen como finalidad ofrecer una alternativa de alojamiento y convivencia de calidad a las personas mayores. Para este cumplimiento se considera necesario e indispensable el establecimiento de unas normas de funcionamiento para las personas usuarias, sus familiares, los profesionales y demás personas que participen en el día a día de los mencionados alojamientos, siendo de obligado cumplimiento para todas ellas.</p>
<p>Oro har, derrigorrezkoa izango da oinarrizko arau minimo batzuk betetzea elkarbizitza, higiene eta elkarrekiko errespetuari dagokienez, eta horretarako gogoan izan behar da norberaren askatasuna besteen eskubideak hasten diren tokian bukatzen dela.</p>	<p>Como norma fundamental, existe la obligación de guardar las normas de convivencia, higiene y respeto mutuo más elementales, recordando a tales efectos, que la libertad de cada uno/a termina donde empiezan los derechos de los demás.</p>
<p>Erabiltzailea apartamentuan sartzen den unean emango zaio barne araudia, eta une oro eskura edukiko dute aurreko atalean aipatutako pertsona guztiek, bai udalaren web orrialdean, bai Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailean, bai zentroan bertan.</p>	<p>El reglamento interno se entrega en el momento del ingreso de la persona usuaria en el apartamento y está disponible en todo momento, tanto en la página web municipal, el departamento de servicios sociales del Ayuntamiento, como en el propio servicio, para todas aquellas personas que se han mencionado en el apartado anterior.</p>
<p><b>II. KAPITULUA. FUNZIONAMENDU ARAUAK</b></p>	<p><b>CAPÍTULO II. NORMAS DE FUNCIONAMIENTO</b></p>
<p><b>22. artikulua. Alderdi orokorrak eta espezifikoak</b></p>	<p><b>Artículo 22. Aspectos generales y específicos</b></p>
<p>Ezinbestekoa da ondoren aipatzen diren bizikidetza, higiene eta elkarrekiko errespetuaren arauak betetzea, apartamentuek ondo funtziona dezaten.</p>	<p>El cumplimiento de las normas de convivencia, higiene y respeto mutuo que se mencionan a continuación son indispensables para el buen funcionamiento de los apartamentos.</p>
<p>1. Alderdi orokorrak</p>	<p>1. Relativas a aspectos generales</p>

- |   |  |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Apartamentuak bakar-bakarrik ohiko etxebizitza modura erabiliko dira; hortaz, ezinezkoa da inongo titulupean beste pertsona batzuei saltzea, ematea, alokatzea edota eskualdatzea.</li> <li>- Apartamentuetan bizi direnek behar den errespetu eta begirunea izango diete gainerako egoiliarrei, elkarren artean bizikidetzak baketsua izan dezaten. Bereziki, berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratua emango da genero eta/edo erlijio gaitan.</li> <li>- Apartamentuko instalazioak eta espazio komunak behar bezala erabili behar dituzte, apartamentuan dauden ondasunak doloz edo zabarkeriaz kaltetu gabe.</li> <li>- Eraikinetako espazio komunak bakar-bakarrik egoiliarrek erabiltzeko dira. Guztion artean jasota eta garbi edukiko dira, erabili ondoren.</li> <li>- Egoiliarrak ez dira beste egoiliar baten apartamentuan sartuko haren baimenik gabe.</li> <li>- Egoiliarrek objektu bat aurkitu edo galtzen badute zentroko langileari jakinaraziko diote.</li> <li>- Zerbitzuaren beste egoiliarren atsedena errespetatu beharko da, bereziki 22:00etatik 8:00etara arte lanegunetan, eta 10:00etara arte jaiegunetan. Horretarako, apartamentu barruan ez da gainerako egoiliarrak molestatzeko moduko zaratarik egingo, esate baterako telebista, irati edo antzekoekin. Eta apartamentuetatik kanpo ere besteen atsedena hondatuko duen egoerarik ez da sortuko, esate baterako, elkarrizketa ozenekin, pasilloetan haur jolasekin, atean danbatekoekin edo antzekoekin.</li> <li>- Egoiliarrak eurak arduratu beharko dira beren bizitzaz eta behar pertsonalez (botikak, elikadura, zaintza...), bakoitzaren autonomia mailan oinarrituta. Eta laguntza eskatuko dute beren kabuz egin ezin dituzten lanak egiteko.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Los apartamentos han de ser utilizados exclusivamente como alojamiento habitual, no pudiendo venderse, cederse, arrendarse, ni traspasarse a otras personas por ninguna clase de título.</li> <li>- Las personas residentes de los apartamentos deben guardar el respeto y consideración debida al resto de personas residentes para mantener una convivencia pacífica. Especialmente se mantendrá un trato igualitario y no discriminatorio por razón de género y/o religión.</li> <li>- Deben utilizar adecuadamente las instalaciones del apartamento y espacios comunes, no dañando ni utilizando de forma dolosa o negligente los bienes que estén en los mismos.</li> <li>- Los espacios comunes del edificio son de uso exclusivo para todas las personas residentes, debiendo entre todas mantenerlo recogido y limpio después de su uso.</li> <li>- Las personas residentes no entrarán en el apartamento de otra persona sin su permiso.</li> <li>- Las personas residentes que encuentren o pierdan un objeto lo comunicarán a la técnico responsable del recurso.</li> <li>- Deberá de respetarse el descanso del resto de personas residentes en el edificio, en especial desde las 22:00 horas hasta las 8:00 horas en días laborables y 10:00 en días festivos. Por ello, dentro de los apartamentos deberán de evitarse los ruidos excesivos, tales como televisión, radio, etc., que puedan molestar al resto de personas, y fuera de los apartamentos toda situación que altere el descanso de los ocupantes del edificio, tales como conversaciones en voz alta, juegos de niños en los pasillos, portazos o situaciones similares.</li> <li>- Las personas residentes en base al nivel de autonomía de cada uno/una deberán responsabilizarse de su régimen de vida y atenciones personales: medicinas, alimentación, cuidado, ... solicitando apoyo en las tareas que no puedan realizar por si</li> </ul> |
|---|--|

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Apartamentuetan bizi direnek ezin izango dute inolako obrarik edo egokitzapenik egin, aurretik Udalaren baimenik eduki gabe.</li> <li>- Egoiliarak apartamentuko giltza galtzen badu, kopia bat eskatuko du Udaleko gizarte zerbitzuetan.</li> <li>- Ezingo da arroparik zabaldu fatxadako leihoetan.</li> <li>- Eremu komunak (pasilloak, eskaierak...) apartamentuetako langileek aireztatuko dituzte.</li> <li>- Apartamentuetan etxeko animaliak eduki ahal izango dira, Udaleko gizarte-zerbitzuen alde aurreko baimena izanda, baldin eta eraikineko gainerako erabiltzailearekiko bizikidetzan eta errespetuan eragin negatiborik ez badu.</li> </ul>	<p>mismos/as.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Las personas residentes de los apartamentos no podrán realizar ningún tipo de obra, ni adecuación en el apartamento sin previo permiso del Ayuntamiento.</li> <li>- Si la persona residente perdiera la llave del apartamento, pedirá una copia en los servicios sociales del Ayuntamiento.</li> <li>- En la fachada no se podrá colgar ropa en las ventanas.</li> <li>- La ventilación de zonas comunes, tales como pasillos, escaleras..., será realizada por las personas trabajadoras de los apartamentos.</li> <li>- Se podrá tener en los apartamentos animales domésticos, previa autorización de los servicios sociales del Ayuntamiento, y siempre que no incida negativamente en la convivencia y respeto hacia el resto de las ocupantes del edificio.</li> </ul>
<p>Udalak animaliak edukitzeko baimena eman dezan, apartamentuaren erabiltzaileak gai izan beharko du, bere kabuz, animalia beharrei erantzuteko eta tratu-, higiene-, elikadura- eta babes-ikuspegitik jaso behar dituen gutxienezko arretak emateko. Gainera, derrigorrezkoa den kasuetan, animaliek Udalean identifikatuta eta errolatuta egon beharko dute, egun indarrean dagoen ordenantzari jarraikiz, zehazki, Pasaia udalerrian animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantzaren arabera.</p>	<p>Para que el Ayuntamiento autorice la tenencia de animales, la persona usuaria del apartamento deberá ser capaz –por si misma– de atender las necesidades del animal y procurarle las atenciones mínimas que han de recibir desde el punto de vista de trato, higiene, alimentación y protección. Además, en el caso de que ello sea obligatorio, los animales deberán estar identificados y censados en el Ayuntamiento, tal y como consta en la ordenanza reguladora de la tenencia y protección de animales vigente en el término municipal de Pasaia.</p>
<p>Animaliak edukitzeko baimena emateko, animaliak edukitzeko eta babesteko udal-ordenantzan jasotako betebeharrak bete beharko dira, bereziki, animalia edukitzeko baldintzei eta haien zaintza eta jagoletzari buruzkoak. Udalak, baimenean egoki irizitako baldintzak betetzeko eska dezake, ordenantza horretan arautzen ez badira ere.</p>	<p>La autorización de tenencia de animales estará sujeta al cumplimiento de las obligaciones recogidas en la ordenanza municipal de tenencia y protección de animales, en particular, las relativas a las condiciones de tenencia del animal, y la custodia y guarda de los mismos. Pudiendo, el Ayuntamiento, en la autorización exigir el cumplimiento de los requisitos que se estimen pertinentes, con independencia de que los mismos no se regulen en la susodicha ordenanza.</p>
<p>Inola ere ez da baimenduko «arriskutsu» edo «potenzialki arriskutsu» gisa kalifikatutako</p>	<p>En ningún caso se autorizará la tenencia de animales calificados como «peligroso» o</p>

animaliak edukitzea.	«potencialmente peligroso».
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Debekatuta dago droga toxikoak, estupefazianteak edo gai psicotropikoak legez kontra landatzea edo kontsumitzea edo edukitzea, nahiz eta trafikorako ez izan.</li> <li>- Guztiz debekatuta dago material zikinak eta/edo arriskutsuak apartamentuetan sartzea edo biltzea, eta berariaz debekatzen da armak edukitzea, dagokion arma lizentzia indarrean eduki arren.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Se prohíbe la plantación o el consumo o la tenencia ilícitos de drogas tóxicas, estupeficientes o sustancias psicotrópicas, aunque no estuvieran destinadas a tráfico.</li> <li>- Queda terminantemente prohibido introducir ni almacenar materiales anti-higiénicos y/o peligrosos, prohibiéndose expresamente la tenencia de armas, aunque se tenga la correspondiente licencia de armas.</li> </ul>
2. Alderdi espezifikoak	2. Relativas a aspectos específicos
a) Norbere garbitasuna	a) Aseo personal
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreferentziatzko teknikariek norberaren garbitasunari eta jantziei buruz emandako jarraibideak beteko dira, eta argi eta garbi egon beharko dute.</li> <li>- Egoiliarrek zailtasunak baditu garbitasun pertsonalean, zentroko teknikariei jakinarazi beharko die. Horrelako kasuetan Gizarte Zerbitzuetako Sailak kudeatuko ditu egoiliarrek behar dituen zerbitzu edo prestazioak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Se atenderán las indicaciones del técnico referente en relación al aseo personal y la vestimenta, debiendo mantenerse unas condiciones dignas.</li> <li>- Si la persona residente tuviera dificultades para realizar su aseo personal deberá ponerlo en conocimiento del personal del centro. En este caso el departamento de Servicios Sociales gestionará los servicios o prestaciones que precise.</li> </ul>
b) Apartamentua zainduta edukitzea.	b) Mantenimiento del apartamento.
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoiliarrek garbi-garbi mantendu behar du apartamentua.</li> <li>- Egoiliarrek zailtasunak baditu zeregin horietan, erreferentziatzko teknikariari jakinarazi beharko die. Horrelako kasuetan Gizarte Zerbitzuetako Sailak kudeatuko ditu egoiliarrek behar dituen zerbitzu edo prestazioak.</li> <li>- Egoiliarrek ikusten badu zerbait hondatu dela eta konpondu beharra dagoela, teknikariari jakinaraziko dio. Egoiliarrek apartamentua gaizki erabiltzeagatik gertatu bada kaltea, egoiliarrek berak ordainduko du konponketa.</li> <li>- Aldian-aldian apartamentuetako langileek apartamentuak ikuskatuko dituzte garbi eta txukun dauden ikusteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- La persona residente mantendrá el apartamento en las condiciones higiénicas óptimas.</li> <li>- Si la persona residente tuviera dificultades para realizar estas tareas deberá ponerlo en conocimiento del técnico referente. En este caso el departamento de Servicios Sociales gestionará los servicios o prestaciones que precise.</li> <li>- Si la persona residente aprecia algún desperfecto que requiera reparación informará al técnico referente. Si el desperfecto es motivado por el mal uso del apartamento por parte de la persona, la reparación correrá a cargo de la persona residente.</li> <li>- Periódicamente el personal de los apartamentos supervisará los apartamentos, al objeto de comprobar el estado y orden del mismo.</li> </ul>

<p>c) Janaria</p>	<p>c) Relativas a la comida</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Apartamentuetan egoiliarrek jatorduak bertan egiteko behar den guztia egongo da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Los apartamentos se encuentran dotados con todo lo necesario para que cada residente realice las comidas en el mismo.</li> </ul>
<p>d) Kanpoan izatea eta bisitak</p>	<p>d) Relativas a las ausencias y visitas</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabiltzaileek ardura berezia hartuko dute beren edo hurbileko familiarrekoen helbide eta telefono aldaketen berri emateko teknikari arduradunari.</li> <li>- Erabiltzaileak askatasun osoz irten eta sartu daitezke apartamentutik. Horretarako, ezkaratzeko eta apartamentuko giltzak emango zaizkio egoiliar bakoitzari.</li> <li>- Langileei gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko diete zein egunetan ez duen apartamentuan lo egingo, ospitaleratzeak direnean izan ezik; kasu horretan, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko da.</li> <li>- 15. artikuluan araututako borondatezko aldi baterako irteerak edo kanporatzeak eta ospitaleratzeak jakinaraztea, artikuluko horretan ezarritako baldintzetan.</li> <li>- Erabiltzaileek egunez bisitak jaso ditzakete, bizikidetzara arauak betetzekotan, banakako eta taldeko eskubideak errespetatzekotan eta apartamentuetako gainerako egoiliarren intimitatea bermatzekotan.</li> <li>- Zerbitzuaren erabiltzaile izateak eskubidea emango dio titularrari zerbitzu horiek normalean erabili eta gozatzeko, baina eskubide hori inola ere ez dute izango bere familiarrekoei, lagunek edo beste pertsona batzuek.</li> <li>- Erabiltzaile ez direnek ezin izango dute bertan bizi, ez eta gaua pasatu ere. Salbuespenez, eta udalak horrela baimenduta, familiarreko edo zaintzaile direnek gaua pasatu ahal izango dute erabiltzaileak zaintza behar duen egoeretan (hala nola, gaixoaldia, ospitaleko alta...) edota laguntza emozionala behar den egoeretan (familiarreko baten heriotza, etab.).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Las personas residentes pondrán especial cuidado en comunicar los cambios de domicilio y/o teléfono de sus familiares a la técnico responsable.</li> <li>- Las personas residentes tienen plena libertad para salir y entrar en la vivienda, para la cual se le concederán las llaves del portal y del apartamento a cada residente.</li> <li>- Deberán comunicar a la técnico responsable con una antelación mínima de 24 horas, los días en que no va a pernoctar en el apartamento, salvo que se trate de hospitalizaciones; en cuyo caso, se deberá de comunicar lo antes posible.</li> <li>- Comunicar las ausencias voluntarias y de hospitalización reguladas en el artículo 15, en los términos establecidos en dicho artículo.</li> <li>- Las personas usuarias podrán recibir durante el día cualquier visita, debiendo cumplir las normas de convivencia, respetando los derechos individuales y colectivos y garantizando la intimidad del resto de personas alojadas.</li> <li>- Tanto los servicios como las instalaciones a que da derecho la condición de residente del servicio, serán usados y disfrutados de forma habitual por su/s titular/es, no siendo en ningún caso extensivos a familiares, amistades u otras personas.</li> <li>- Con carácter general no se permite el alojamiento en los apartamentos a personas no usuarias. Excepcionalmente, y por motivos que han de ser valorados y aceptados por el ayuntamiento, podrán pernoctar familiares y/o cuidadores de la persona mayor en situaciones que requieran cuidado (por ejemplo, enfermedad sobrevenida, o alta hospitalaria, ...) o apoyo emocional ante una situación sobrevenida</li> </ul>

	(fallecimiento de un familiar, etc.).
e) Etxebizitzatik kanpo egoiliarrak izan ditzakeen arreta-beharrak	e) Relativas a las necesidades de atención al/a la residente fuera de la vivienda
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxebizitzaren erabiltzaile bat gaixotzen bada eta ospitaleratu beharra izanez gero, familia arduratuko da ospitaleko osasun laguntzaz, gaixoa zaintzeaz, arreta eskaintzeaz eta bisitatzeaz.</li> <li>- Erabiltzailea ospitalean, oporretan, familia edo lagunak bisitatzeko dagoen bitartean, zentroko profesionalak ez dira erabiltzailea artatzeaz eta berekin egoteaz arduratuko, egoeraren jarraipena egingo duten arren.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Cuando la persona residente enferme y tenga que ser trasladada a un centro hospitalario, será la familia quien se hará cargo de la asistencia sanitaria, atención y visitas hospitalarias, así como de establecer el cuidado del enfermo.</li> <li>- Durante el periodo que la persona se encuentre ausente del apartamento debido a un ingreso hospitalario, de vacaciones, de visita a familiares o amigos, el técnico responsable no se hará cargo de la atención y acompañamiento, aunque se realice seguimiento.</li> </ul>
f) Egoiliarraren arreta-premiei buruzkoak, ospitaleraterik gabeko gaixotasunen kasuan	f) Relativas a las necesidades de atención a la persona residente en caso de enfermedad sin traslado a centro hospitalario
Egoiliarra gaixotzen bada eta ospitaleratzeko ez badute, arreta pertsonalizatua behar izanez gero, baliabideak aztertuko dira.	Cuando la persona residente enferme y no sea trasladada a un centro hospitalario, pero precise de una atención personalizada, se valorarán los recursos de apoyo.
g) Altzariak	g) Relativas al mobiliario
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Altzariak, tresnak eta gainerako elementu guztiak norberarenak izango balira bezala zaindu behar dira.</li> <li>- Etxebizitzan erabiltzaileentzako moduko altzariak egongo dira. Hala ere, apartamentuetako egoiliarrak nahi dituen objektu eta tresnak jarri ahalko ditu, esleitu zaion espazioaren baldintza eta neurrietarako egokiak badira. Udala ez da inondik ere arduratuko etxebizitzan dituen baliozko objektuez.</li> <li>- Zerbitzuaren erabiltzaileak bere altzariak eraman ahalko ditu, aldez aurretik Udaleko Gizarte Zerbitzuek berariaz baimena eman ondoren, betiere sartzen badira eta baldintza egokiak badituzte. Altzariak eramatea erabiltzailearen kontura izango da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Se cuidarán como propios los muebles, enseres y demás elementos existentes.</li> <li>- El piso dispondrá del mobiliario adecuado para los/as usuarios, no obstante, la persona residente del apartamento podrá, de forma voluntaria, instalar en el mismo aquellos objetos o enseres que considere oportunos siempre que sean compatibles con las condiciones y dimensiones del espacio asignado. En ningún momento el Ayuntamiento se responsabilizará de los objetos de valor que tenga en su vivienda.</li> <li>- La persona usuaria del servicio deberá dar cuenta siempre a la persona responsable del servicio, de cuantas anomalías observe en el funcionamiento de aparatos o muebles para poder proceder a su pronta reparación.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoiliar bat hiltzen bada, edo beste zentro batera eramaten badute, hurbileko familiari eskatuko zaio haren gauzak jaso ditzala. Egoiliar bat hil eta 15 egun pasa ondoren familiartekoei haren gauzak jasotzen ez badituzte, Udalak erabakiko du gauza horiekin zer egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asimismo, ante el fallecimiento de un/una residente, o traslado a otro centro, se instará a la familia allegada a recoger las pertenencias que hubiera. Si en el plazo de 15 días la familia allegada no recogiera sus pertenencias, el Ayuntamiento decidirá qué hacer con ellas.</li> </ul>
<p>h) Segurtasun neurriak</p>	<p>h) Relativas a medidas de seguridad</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komun-zulotik edo leihotik ezin da ezer bota.</li> <li>- Istripurik egon ez dadin, arduratu egin beharko da apartamentutik irtetea iturriak itxita uzteaz, eta argiak, irratia eta telebista itzaltzeaz.</li> <li>- Erretzeko ohitura indarrean dagoen legean jasotakoaren mende dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Se prohíbe tirar nada por la taza del retrete o por la ventana.</li> <li>- Con el fin de evitar accidentes se pondrá especial cuidado en dejar los grifos cerrados, las luces apagadas, radio, tv al salir del apartamento.</li> <li>- El hábito de fumar queda supeditado a lo recogido en su correspondiente ley vigente.</li> </ul>
<p><b>23. artikulua. Egoiliarrek parte hartzeko bideak</b></p>	<p><b>Artículo 23. Cauces de participación de las personas residentes</b></p>
<p>Apartamentuetako egoiliarrek zalantza, iradokizun edo erreklamazioen bat egin nahi badute, arduradun teknikoari adierazi ahal izango dio.</p>	<p>Cualquier duda, reclamación sugerencia que tenga cualquier residente de los apartamentos podrá manifestarla a la técnico responsable.</p>
<p><b>III. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK</b></p>	<p><b>CAPÍTULO III. DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS</b></p>
<p><b>24. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak</b></p>	<p><b>Artículo 24. Derechos de las personas usuarias</b></p>
<p>Erabiltzaileek bizitzeko askatasun handia izango dute, erregelamendu honek eta barne araudian jasotako bizikidetzara arauak jarritako mugen barruan.</p>	<p>Las personas usuarias gozarán de la más amplia libertad de vida dentro de los límites que marca este reglamento y las normas de convivencia recogidas en la normativa interna.</p>
<p>Eskubide hauek izango dituzte:</p>	<p>Tendrán derecho a:</p>

- |  |   |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxebizitzaren erabileraz gozatzeko eskubidea.</li> <li>- Etxebizitzan bisitak hartzeko (horretarako jarritako ordutegian) eta telefono-deiak eta bere gutunak jasotzeko eskubidea.</li> <li>- Pertsona bakoitzak dituen behar espezifikoan arabera kalitatezko banakako arreta jasotzeko eskubidea. Horretarako, arreta plan pertsonala egingo da, eta urtero berrikusiko da.</li> <li>- Bertako langile eta gainerako erabiltzaileen aldetik duintasunez eta errespetu osoz tratatua izateko eskubidea, askatasun, gizabide eta bizikidetzaren giroan.</li> <li>- Bere datuen pribatasuna eta konfidentziasuna gordetzeko eta intimitate pertsonala eta harremanetako babesteko eskubidea. Fitxa pertsonalen konfidentziasuna.</li> <li>- Ordezkaria aukeratzeko eskubidea, ezartzen diren ordezkari-organoen bitartez komunitateko bizitzaren funtzionamenduan parte hartzeko.</li> <li>- Zerbitzu orokorrek eta administratiboek behar bezala funtziona dezatela exijitzeko eskubidea. Bizigarritasun, higiene, elikadura, segurtasun, errespetu eta intimitateari dagokienez, zentroaren aldetik gutxienezko baldintzak jasotzeko eskubidea.</li> <li>- Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko iritzia emateko, eta zerbitzua hobetzeko komenigarri iruditzen zaion edozein iradokizun eta premia planteatzeko eskubidea.</li> <li>- Bere apartamentuko giltza izateko eskubidea, individualizazio printzipioa betetzeko. Hala ere, zerbitzuko langileek eta Udalak giltzaren kopia izango dute, behar izanez gero erabiltzeko.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Disfrutar del uso de la vivienda.</li> <li>- Recibir visitas en la vivienda en el horario que se establezca al efecto no altere la convivencia en la comunidad, así como llamadas telefónicas y su propia correspondencia.</li> <li>- Recibir una atención individualizada de calidad, acorde con las necesidades específicas de cada persona, para lo que se elaborará un plan de atención personal, revisado anualmente.</li> <li>- A ser tratado de forma digna y con el máximo respeto por el personal profesional y por el resto de las personas usuarias en un clima de libertad, educación y convivencia.</li> <li>- A la privacidad y confidencialidad de sus datos y a preservar su intimidad personal y relacional. Confidencialidad de las fichas personales.</li> <li>- A elegir a su representante para participar en el funcionamiento de la vida comunitaria a través de los órganos de representación que se establezcan.</li> <li>- Al correcto funcionamiento de los servicios generales y administrativos, y a que el centro le proporcione unas condiciones aceptables de habitabilidad, higiene, seguridad, respeto e intimidad.</li> <li>- A manifestar sus opiniones sobre el funcionamiento del servicio, planteando cuantas sugerencias y necesidades crean convenientes para su mejor marcha.</li> <li>- A tener la llave de su apartamento, con el objeto de cumplir el principio de individualización, sin perjuicio que las personas trabajadoras del Ayuntamiento, tenga copia de la llave para utilizarlo en caso necesario.</li> </ul> |
|--|---|

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzuaren erabiltzaileak nahi dituen objektu eta tresnak jarri ahal izango ditu, esleitu zaion espazioaren baldintza eta neurrietarako egokiak badira. Aldez aurretik baimena eskatu eta aldeko balorazioa jaso beharko du. Udala ez da inondik ere arduratuko etxebizitzan dituen baliozko objektuez.</li> <li>- Urtean gehienez ere 60 eguneko oporraldiak izateko eskubidea. Gaua etxebizitzan pasatu behar ez den bakoitzean, aldez aurretik horren berri eman beharko zaio apartamentuko erreferentziatzeko pertsonari.</li> <li>- Beharrezko dituzten zerbitzu eta prestazio sozialak kudeatzeko eskubidea, apartamentuetako langileen eta gizarte langile erreferentearen bidez.</li> <li>- Barne-funtzionamenduko araudia une oro eskura izateko eskubidea, eta kontratu bat formalizatzeko eskubidea; kontratuan, Udalarekin sinatutako akordioa azalduko da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- La persona usuaria del servicio podrá, de forma voluntaria, instalar en el mismo objetos personales y muebles, siempre que sean compatibles con las condiciones y dimensiones del espacio asignado, previo permiso y valoración favorable. En ningún momento el ayuntamiento se responsabilizará de los objetos de valor que tenga en su vivienda.</li> <li>- A disfrutar de un periodo de vacaciones no superior a 60 días. Los días que no se pernocte en la vivienda debe comunicarse a la persona de referencia del centro con antelación.</li> <li>- A la gestión de servicios y prestaciones que requiera a través de la trabajadora social referente.</li> <li>- Disponer la normativa interna de funcionamiento en cada momento, así como la formalización de un contrato donde se recoge el acuerdo suscrito con el ayuntamiento.</li> </ul>
<p><b>25. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak</b></p>	<p><b>Artículo 25. Obligaciones de las personas usuarias</b></p>
<p>Apartamentuetan bizi direnek ondorengo betebeharrak izango dituzte:</p>	<p>Las personas residentes de los apartamentos tendrán las siguientes obligaciones:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalarekin sinatutako kontratua betetzea.</li> <li>- Proposatutako esku-hartze plana bete eta bertan parte hartzea.</li> <li>- Apartamentuen kudeaketaz arduratzen den erreferentziatzeko pertsonari beharrezko eta benetako informazioa ematea, beharren ebaluazioa egin dezan eta, beharrezkoa bada, baita banakako arreta-plana ere.</li> <li>- Funtzionamenduari eta barne-araubideari buruzko erregelamendu honetan jasotako bizikidetzaren arauak ezagutu eta betetzea, eta bata bestearekiko errespetuan, tolerantzian eta hezibide onean oinarritutako jokabidea izatea. Zentroaren</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Cumplir el contrato suscrito con el Ayuntamiento.</li> <li>- Cumplir y participar en el plan de intervención propuesto.</li> <li>- Transmitir a la persona encargada de la gestión de los apartamentos la información necesaria y veraz para proceder a la evaluación de las necesidades y, en su caso, a la elaboración del plan individual de atención.</li> <li>- Conocer y cumplir las normas de convivencia establecidas en el presente reglamento de funcionamiento y régimen interno, observando una conducta basada en el mutuo respeto y la tolerancia, la colaboración y la ayuda mutua. No</li> </ul>

funtzionamendu egokia ez oztopatzea.

- Bata bestearekiko errespetuan, tolerantzian eta hezibide onean oinarritutako jokabidea izatea, apartamentuetako egoiliar guztien artean ahalik eta harreman harmoniatsuenak lortzearren.
- Instalazioak egoera onean mantentzea, eta uzten zaizkien altzari, tresna eta gainerako elementuak norberarenak balira bezala zaintzea.
- Udalak baimendu gabeko pertsonen etxebizitza erabiltzen ez uztea, horiekin izan dezakeen ahaidetasuna edo harremana dena delakoa izanda ere.
- Ahalik eta azkarren adieraztea beren borondatez kanpoan egongo direla edo ospitaleratzekoak izango direla.
- Erreferentziazko teknikariari 15 egun lehenago jakinaraztea etxebizitza uzteko beharra edo asmoa daukatela.
- Beharrezkoa den guztietan eta alde zuzenetan abisatuta, apartamentura sartzen uztea zentroko langileei eta etxez etxeko zerbitzuko langileari, baita ere udaleko gizarte-langileari, Pasaia udaltzaingoari, udal brigadari eta udalak zentroa edota apartamentuak konpontzeko edo mantentze-lanetarako kontratatzen dituen pertsonen ere.

Etxeko laguntzaileak apartamentuan sartu behar duenean egoiliarrekin adostuko du.

- Instalazioetan –bai eremu komunean, bai apartamentuan bertan– ikusten dituzten anomaliak eta irregulartasunak jakinaraztea langileei.
- Bat-bateko ezintasun egoeraren bat gertatutakoan, gizarte zerbitzuek hartzen duten erabakia obeditzea

entorpecer la buena marcha de los apartamentos.

- Observar una conducta basada en el respeto mutuo, la tolerancia y la buena educación a fin de conseguir la máxima armonía en las relaciones de todos los/as residentes de los apartamentos.
- Mantener el buen estado de las instalaciones, cuidando como propios los muebles, enseres y demás elementos que le sean facilitados.
- No permitir el uso de la vivienda a personas no autorizadas por el Ayuntamiento, independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con ellos.
- Comunicar sus ausencias voluntarias, y las de ingreso hospitalario, tan pronto como se tenga conocimiento de ellas.
- Comunicar a la técnico de referencia, con una antelación mínima de 15 días, la necesidad o voluntad de abandonar el apartamento.
- Permitir el acceso al apartamento siempre y cuando sea necesario y con previo aviso, a las personas trabajadoras del centro o auxiliar de ayuda domiciliaria, así como a la trabajadora social municipal, la policía local de Pasaia, la brigada municipal, y las personas que contrate el Ayuntamiento para la reparación y mantenimiento de los apartamentos.

La entrada de la auxiliar domiciliaria en el apartamento será acordada con el/la residente.

- Poner en conocimiento del personal de los apartamentos las anomalías e irregularidades que observen en las instalaciones, tanto en las zonas comunes, como en el propio apartamento.
- Acatar la decisión tomada por los servicios sociales ante una situación de incapacidad sobrevenida.

<p>– Egonaldiagatik ezarri zaion zenbatekoa garaian ordaintzea. Horren haritik, zerbitzua esleitzeko oinarri izan diren baliabideetan izandako edozein aldaketaren berri ematera behartuta daude erabiltzaileak, aldaketa gertatzen denetik kontatzen hasita gehienez ere 15 egun naturaleko epean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jasotzen dituzten diru-sarrera motak eta/edo kopuruak aldatzea.</li> <li>• Ondarea handitzea edo txikitzea.</li> <li>• Diru-sarrerak lortzea izaera ekonomiko eskubideak gauzatzeagatik.</li> </ul>	<p>– Abonar puntualmente el importe de la cantidad que por su estancia haya sido fijada. En este sentido, las personas residentes están obligadas a comunicar, en el plazo de 15 días naturales contados a partir del momento en que acaeciera, cualquier modificación de los recursos que hayan servido de base para la adjudicación del servicio:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Cambios en el tipo y/o cuantía de los ingresos percibidos.</li> <li>• Incrementos y disminuciones patrimoniales.</li> <li>• Obtención de ingresos como consecuencia de haber hecho valer derechos de carácter económico.</li> </ul>
<p><b>26. artikulua. Iradokizun eta kexen aurkezpena, tramitazioa eta ebazpena</b></p>	<p><b>Artículo 26. Presentación, tramitación y resolución de sugerencias y quejas</b></p>
<p>Apartamentuetako egoiliarrek zuzenean parte hartu ahalko dute zerbitzuen funtzionamenduan, denbora guztian edo momentu jakin batzuetan, horretarako iradokizunak eta kexak aurkeztuz.</p>	<p>Las personas residentes de los apartamentos podrán participar directamente en el funcionamiento de los servicios de forma continuada, o en ocasiones puntuales, a través de la presentación de sugerencias y quejas.</p>
<p>Iradokizun eta kexak aurkezteko honako bideak jarriko dira erabiltzaileen eskura:</p>	<p>Para la presentación de las sugerencias y quejas se pondrán a disposición de las personas usuarias las siguientes vías:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Kexa eta iradokizunen ontzia: ondo ikusteko moduko tokian eta eskura egongo da jarrita, eta bertan utzi ahal izango da idatzia.</li> <li>▮ Iradokizun eta kexak idatziz edo bitarteko elektronikoz bidaltzeko aukera egongo da.</li> <li>▮ Erreklamazio-liburu bat egongo da, eta egoiliar guztiek erabili ahal izango dute; konfidentzialtasuna momentu guztian bermatuko da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Buzón de quejas y sugerencias, que se encontrará colocado en un sitio visible y accesible, en donde podrá depositarse el documento por escrito.</li> <li>▮ La posibilidad de remitir las sugerencias y quejas por escrito o por medios electrónicos.</li> <li>▮ La existencia de un libro de reclamaciones que podrá ser utilizado por las personas residentes, garantizando en todo momento la confidencialidad.</li> </ul>
<p>Pertsonarentzat egokiagoa bada, ahoz jaso daitezke iradokizunak eta kexak. Udalaren erreferentziazko langilearekin elkarrizketa pertsonal bat egingo da, eta horiek idatziz jasoko dute egindako iradokizuna eta/edo kexa.</p>	<p>En el caso de que resulte más idóneo para la persona se recogerán las sugerencias y quejas por comunicación verbal, manteniendo una entrevista personal con la técnico responsable del centro, quien recogerá por escrito la sugerencia y/o queja realizada.</p>

Iradokizunak tramitatu eta ebazteko:	Para la tramitación y resolución de sugerencias:
Iradokizunak eta/edo kexak aztertu ondoren, konfidentzialtasun-printzipioa beti bermatuz, iradokizun eta/edo kexa horiei emandako erantzunen berri eman behar zaio egoiliarri edo egoiliarrei, gehienez 30 egun balioduneko epean, iradokizunak eta/edo kexak aurkezten direnetik zenbatzen hasita.	Garantizando siempre el principio de confidencialidad, tras analizar las sugerencias y/o quejas, las respuestas a las mismas deben ser objeto de comunicación a la persona o personas residentes en un plazo máximo de 30 días hábiles desde la interposición de las mismas.
Idatzizko komunikazioaren ordeztu hitzekoa jarri ahal izango da, egindako jarduketan eta kasuan kasuko azalpenen ondorioz egoiliar erreklamatzailerak era bat gogobetetzen bada.	Podrá sustituirse la comunicación escrita por la verbal cuando las actuaciones habidas y de las explicaciones que correspondan, se derive la plena satisfacción por la persona residente reclamante.
Erreklamazioetarako beste bide batzuk:	Otras vías de reclamación:
Kexak jartzeak ez du ordezkatzeko errekurtso administratibo edo jurisdikzionalen prozeduren bidea, eta ez du etengo indarrean dagoen legediak jasotako beste edozein erreklamazio-bide erabiltzeko jarritako epean iraupena.	La interposición de quejas no sustituye la vía procedimental de recurso administrativo o jurisdiccional, ni suspenderá el transcurso de los plazos legales fijados para la utilización de cualquier otra vía de reclamación que disponga la legislación vigente.
<b>27. artikulua. Arreta-plan pertsonalizatua</b>	<b>Artículo 27. Plan de atención personalizado</b>
Apartamentuetan sartzen diren pertsonen eskubidea eta obligazioa izango dute arreta-plan pertsonalizatu bat egiten parte hartzeko eta sinatzeko. Udaleko gizarte-langile erreferenteak egingo du plan hori, erabiltzailearen parte-hartzearekin.	Las personas que accedan al recurso de alojamiento tendrán derecho y obligación de suscribir y participar en la elaboración de su plan de atención personalizado. Este plan será elaborado por la Trabajadora Social referente del Ayuntamiento con la participación de la persona usuaria.
Erabiltzailearen bizi-kalitatea hobetzeko helburu orokor eta espezifikoa ezarriko dira bertan, bai eta horiek lortzeko egin behar diren ekintzak ere.	En el mismo, se establecerán los objetivos de carácter general y específico que posibiliten la mejora de su calidad de vida, así como las acciones a realizar para la consecución de los mismos.
Plan hori sei hiletik behin berrikusi eta egokituko da orokorrean. Dena den, udalak aukera du egokitzea duenean plana berrikusteko eta/edo egokitzeko.	Este plan será revisado y adecuado con carácter general anualmente. En todo caso, el ayuntamiento tiene la potestad para revisar o adecuar dicho plan en cualquier momento.
<b>IV KAPITULOA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA</b>	<b>CAPÍTULO IV. RÉGIMEN SANCIONADOR</b>
<b>28. Artikulua. Ikuskatzea</b>	<b>Artículo 28. Inspección</b>
1. Ordenantza hau betetzen dela zaintzea eta kontrolatzea Pasaia Udaleko	1. La vigilancia y el control del cumplimiento de esta Ordenanza corresponde al

<p>Gizarte Zerbitzuei dagokie.</p> <p>2. Zerbitzuaren erabiltzaileek edo haien senideek Udaleko gizarte-zerbitzuen aurrean salatu ahal izango dituzte erregelamendu honen arau-haustea. Horretarako, salaketa-idazki bat aurkeztu beharko dute, gertakari horiek egiaztatzen beharrezkoak diren datuekin eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 62. artikuluan jasotako datuekin.</p> <p>Salaketa horiek egiaztatu ondoren, zehapen-espedita bat ireki ahal izango da. Horregatik, salaketaileak ez dira zuzenean prozeduran interesdun izango.</p>	<p>Departamento de servicios sociales.</p> <p>2. Las personas usuarias del servicio o sus familiares podrán denunciar ante los servicios sociales del Ayuntamiento las infracciones de este reglamento, presentando para ello un escrito de denuncia con los datos necesarios para su comprobación y los extremos recogidos en el artículo 62 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común.</p> <p>Estas denuncias después de ser comprobadas, podrán dar lugar a la incoación de un expediente sancionador. Las personas denunciantes, no obtienen por ello directamente la condición de persona interesada en el procedimiento.</p>
<p><b>29. artikuloa. Arau-haustea</b></p>	<p><b>Artículo 29. Infracciones</b></p>
<p>Arau-hauste administratibotzat joko dira erregelamendu honetan jasotako arauak urratzen dituzten egite eta ez-egite guztiak.</p>	<p>Se consideran infracciones administrativas todas aquellas acciones y omisiones que contravengan las normas contenidas en el presente reglamento.</p>
<p>Ordenantza honen ondorioetarako, arau-haustea arinak, larriak eta oso larriak izango dira:</p>	<p>A los efectos de la presente ordenanza, las infracciones podrán ser leves, graves y muy graves:</p>
<p>a) Arau-hauste arinak</p>	<p>a) Infracciones leves</p>
<p>Ondorengo hauek arau-hauste arinak izango dira:</p>	<p>Tienen carácter de infracciones leves las siguientes:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Erabiltzaileek arauak, baldintzak eta prozedurak arinki urratzea, gizarte zerbitzuetako profesionalen programak eta orientazioak ez jarraitzea, eta, hala, esku-hartze sozialaren helburua hutsaltzea.</li> <li>▮ Zerbitzuko edo zentroko langileei, erabiltzaileei edo bisitariei zor zaien begirunea arinki urratzea.</li> <li>▮ Instalazioak edo etxebizitzako bitartekoak gaizki erabiltzea edo bertako jarduerak behar bezala egiten ez uztea, bizikidetzaren eta elkarrekiko errespetua urratuz eta bizikidetzaren eragotziz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Incumplir, de forma leve, por parte de las personas usuarias las normas, requisitos y procedimientos establecidos, así como las orientaciones de los profesionales de los servicios sociales, de tal forma que se desvirtúe la finalidad de la intervención social.</li> <li>▮ Faltar levemente al personal, a las personas usuarias o a los visitantes.</li> <li>▮ Utilizar de forma inadecuada las instalaciones o perturbar las actividades del servicio, alterando las normas de convivencia y respeto mutuo y perjudicando la convivencia.</li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Araudi honetan jasotako betebeharrak ez betetzea, baldin eta ez-betetze hori, bere izaera eta larritasunagatik, ez denean larri edo oso larri modura tipifikatu.</li> <li>▮ Alokairuaren ordainagiria hilabete batez ordaintzen berandutzea, justifikatu gabe.</li> <li>▮ Absentziak ez jakinaraztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Incumplir las obligaciones recogidas en el presente reglamento, cuando dicho incumplimiento, por su naturaleza y gravedad, no sea tipificado como grave o muy grave.</li> <li>▮ Por la demora no justificada en el pago de recibo por alquiler de 1 mes.</li> <li>▮ No comunicar las ausencias.</li> </ul>
<p>b) Arau-hauste larriak</p>	<p>b) Infracciones graves</p>
<p>Ondorengo hauek arau-hauste larriak izango dira:</p>	<p>Tienen carácter de infracciones graves las siguientes:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Zerbitzuko edo zentroko langileei, erabiltzaileei edo bisitariei zor zaien begirunea larriki urratzea.</li> <li>▮ Zentroko ondasunetan eta ekipamenduetan kalte larriak eragitea, edo zentroko zerbitzuen garapen normalari edo bizikidetzari kalte nabarmenak eragitea.</li> <li>▮ Barne araudian jasotako betebeharrak larriki ez betetzea, ez-betetze hori oso larria ez denean.</li> <li>▮ Arau-hauste arinak behin eta berriz errepikatzea.</li> <li>▮ Zentroko erabiltzaileak eta profesionalak mintzea irainen eta biraoen bidez edo beste edozein errespetu falta erakutsiz.</li> <li>▮ Bere espedienteari buruzko datu pertsonalak faltsutzea edo ezkutatzea.</li> <li>▮ Baimendu gabeko bisitak onartzea.</li> <li>▮ Bizikidetzako arauak sarritan hondatzea, apartamentuen barruan edo zentroko komunitatean ezinegon sortuz.</li> <li>▮ Edari alkoholdunak eta/edo sustantzi psikotropikoak edukitzea eta/edo neurri gabe kontsumitzea.</li> <li>▮ Banakako esku-hartze programa behin eta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Faltar gravemente al personal, a las personas usuarias y los visitantes.</li> <li>▮ Ocasionar daños graves en los bienes y equipamientos del centro o perjuicios notorios al normal desarrollo de los servicios o a la convivencia del centro.</li> <li>▮ Incumplir gravemente las obligaciones recogidas en el correspondiente reglamento de régimen interior cuando dicho incumplimiento no sea muy grave.</li> <li>▮ Reincidir en infracciones leves.</li> <li>▮ Ofender de forma grave con faltas de respeto e insultos tanto a personas usuarias como a profesionales del centro.</li> <li>▮ Falsear u ocultar datos personales relativos a su expediente.</li> <li>▮ La aceptación de visitas no autorizadas.</li> <li>▮ Alteración de las normas de convivencia de forma habitual, creando situaciones de malestar dentro del apartamento o en la comunidad.</li> <li>▮ Abusos de consumos y/o tenencia de bebidas alcohólicas y/o sustancias psicotrópicas.</li> <li>▮ Incumplimiento reiterado del programa</li> </ul>

<p>berriz ez betetzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Udaltzaingoari, udal-brigadari, instalazioak edo apartamentua konpontzeko eta/edo mantentzeko Udalak kontratatzen dituen pertsoneri apartamentura sartzen ez uztea.</li> <li>▮ Apartamentuetan etxeko animaliak edukitzea aldeztu aurretik udalaren baimenik izan gabe, edo animalia horiek edukitzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.</li> <li>▮ Alokairuaren ordainagiria 2 hilabetez berandu ordaintzeagatik, justifikatu gabe.</li> </ul>	<p>individualizado de intervención.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▮ No permitir el acceso al apartamento a la policía local, la brigada municipal, de las personas que contrate el Ayuntamiento para la reparación y/o mantenimiento de las instalaciones o del propio apartamento.</li> <li>▮ Tener animales domésticos en los apartamentos sin previa autorización municipal, o incumplir las condiciones establecidas para su tenencia.</li> <li>▮ Por la demora no justificada en el pago de recibo por alquiler de 2 meses.</li> </ul>
<p>c) Arau-hauste oso larriak</p>	<p>c) Infracciones muy graves</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Zentroko arduraduna, bertako langileak, erabiltzaileak edo bisitariak jotzea edo horiei tratatu txarrak ematea.</li> <li>▮ Zentroaren, langileen, erabiltzaileen edo bisitarien ondasunak lapurtzea.</li> <li>▮ Zentroko ondasun eta ekipamenduetan edo zentroko zerbitzuen edo bizikidetzaren ohiko garapenean kalte oso larriak eragitea.</li> <li>▮ Arau-hauste larriak behin eta berriz errepikatzea.</li> <li>▮ Udaltzaingoaren, udal-brigadaren edo instalazioak edo apartamentua bera konpontzeko eta/edo mantentzeko Udalak kontratatzen dituen pertsonen apartamentura sartzen ez uzteagatik instalazioetan kalteak eragitea.</li> <li>▮ Zentroko langileei eta udaleko gizarte-langileari apartamentura sartzen ez uztea.</li> <li>▮ Alokairuaren ordainagiria 3 hilabetez berandu ordaintzeagatik, justifikatu gabe.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Agredir físicamente o infligir malos tratos a la persona responsable del centro, a los miembros del personal, o a las personas usuarias o visitantes.</li> <li>▮ Sustraer bienes del centro, del personal, de las personas usuarias o de las y los visitantes.</li> <li>▮ Ocasionar daños o perjuicios muy graves en los bienes e instalaciones o en el normal desarrollo de los servicios o en la convivencia del centro.</li> <li>▮ Reincidir en infracciones graves.</li> <li>▮ Provocar daños en las instalaciones como consecuencia de no permitir el acceso al apartamento de la policía local, la brigada municipal, o de las personas que contrate el Ayuntamiento para la reparación y/o mantenimiento de las instalaciones o del propio apartamento.</li> <li>▮ No permitir el acceso al apartamento a las auxiliares del servicio de ayuda a domicilio, así como a la trabajadora social municipal.</li> <li>▮ Por la demora no justificada en el pago de recibo por alquiler de 3 meses.</li> </ul>
<p><b>30. artikulua. Errepikatzea</b></p>	<p><b>Artículo 30. Reincidencia</b></p>
<p>Erregelamendu honen ondorioetarako,</p>	<p>A los efectos del presente reglamento, existirá</p>

<p>errepikatzea egon dela ulertuko da arau-haustearen arduradun den pertsonak izaera bereko bi arau-hauste berdin edo gehiago egiten baditu bi urtean, eta hala aitortu baldin bada ebazpen irmo bidez.</p>	<p>reincidencia cuando las personas responsables de la infracción cometieran, en el término de dos años, más de dos infracciones de la misma naturaleza y así haya sido declarado por resolución firme.</p>
<p><b>31. artikulua. Zigorrak</b></p>	<p><b>Artículo 31. Sanciones</b></p>
<p>Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigor hauetakoren bat ezarri ahal izango dira:</p>	<p>Las infracciones recogidas en el artículo anterior podrán dar lugar a la imposición de alguna de las sanciones siguientes:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Arau-hauste arinak ohartarazpenarekin zehatuko edo zigortuko dira.</li> <li>▮ Arau-hauste larriak 750 eurorainoko isunarekin zehatuko edo zigortuko dira, eta/edo instalazioetan sei hilabetez egoteko eskubidearen etenarekin. Ete-zigorra ezin izango da ezarri babesgabetasun-egoera sor dezakeenean edo mendetasun-egoeran dagoen pertsona baten arretarik eza eragin dezakeenean.</li> <li>▮ Arau-hauste oso larriengatik 751 € eta 1.500 euro arteko zehapena isuna ezarriko da, eta/edo zerbitzutik kanporatzea eta egoiliar-izaera galtzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Las infracciones leves serán sancionadas con apercibimiento.</li> <li>▮ Las infracciones graves serán sancionadas con multa de hasta 750 euros y/o suspensión del derecho de permanencia en las instalaciones durante un periodo de hasta seis meses. La sanción de suspensión no podrá imponerse cuando pudiera generar una situación de desprotección o pudiera determinar la desatención de una persona en situación de dependencia.</li> <li>▮ Las infracciones muy graves serán sancionadas multa de entre 751 € y 1.500 € y/o con la expulsión del centro y pérdida de la condición de residente.</li> </ul>
<p><b>32. artikulua. Isunen graduazioa</b></p>	<p><b>Artículo 32. Graduación de las sanciones</b></p>
<p>Ezarri beharreko zehapenak edo zigorrak mailakatzeko, arau haustea eragin duen egitatearen larritasunarekiko behar bezalako egokitasuna eta proportzionaltasuna gorde beharko dira, eta kontuan hartu beharko dira, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako inguruabar aringarri eta astungarriez gain, honako irizpide hauek:</p>	<p>Para la graduación de las sanciones que proceda imponer se deberá guardar la debida adecuación y proporcionalidad de las mismas con la gravedad del hecho constitutivo de la infracción, teniéndose en cuenta, además de las circunstancias atenuantes y agravantes regulados en la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común, los criterios siguientes:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Sortutako kalte fisiko, moral eta materialak.</li> <li>▮ Pertsonengan eta ondasunetan sortutako edo mantendutako arrisku-egoera.</li> <li>▮ Arau-haustea egiterakoan izan duen arduragabekeria edo intentzionalitatea.</li> <li>▮ Arau-haustea behin eta berriz egitea edo</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▮ Los perjuicios físicos, morales y materiales causados.</li> <li>▮ La situación de riesgo creada o mantenida para personas y bienes.</li> <li>▮ El grado de negligencia o intencionalidad en la comisión de la infracción.</li> <li>▮ La reincidencia o reiteración en la comisión</li> </ul>

errepikatzea.  ▮ Arau-haustearen garrantzi ekonomiko eta soziala.	de las infracciones.  ▮ La trascendencia económica y social de la infracción.
<b>33. artikulua. Zehapen espedientea</b>	<b>Artículo 33. Expediente sancionador</b>
Ezarri beharreko isunak dagokion espedientea tramitatu ondoren soilik ezarri ahal izango dira.	Las sanciones a imponer podrán establecerse únicamente tras la tramitación del correspondiente expediente.
Espediente hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 63., 64., 85., 89. eta 90. artikuluetan araututako prozeduraren arabera izapidetu beharko da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 25.etik 31.era bitarteko artikuluetan araututako printzipioak errespetatu beharko ditu.	Dicho expediente deberá tramitarse de acuerdo con el procedimiento regulado en los artículos 63, 64, 85, 89 y 90 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; y respetar los principios regulados en los artículos 25 a 31 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.
<b>34. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa</b>	<b>Artículo 34. Prescripción de las infracciones y sanciones</b>
Arau-hauste oso larriak hiru urte igarota preskribituko dira, larriak bi urte igarota eta arinak sei hilabete igarota.	Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses.
Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.	Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a los dos años y las impuestas por infracciones leves, al año.
Zehatzeko ahalmena preskribatuta egon arren, Pasaia Udalak gauzak lehen zeuden moduan uzteko eskatu ahal izango die erantzuleei, dena dela ere igarotako denbora.	La prescripción de la potestad sancionadora no impedirá al Ayuntamiento de Pasaia exigir a los responsables la restitución de las cosas y su reposición a su estado anterior cualquiera que sea el tiempo transcurrido.
<b>35. artikulua. Leheneratzeko betebeharra eta betearazte subsidiarioa</b>	<b>Artículo 35. Obligación a reponer y ejecución subsidiaria</b>
